

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

78/2016 Foru Agindua, martxoaren 18koa, Aiarako arau subsidiarioen bosgarren aldaketari buruzko espedienteari (Arespalditzako adinekoen egoitza handitzeari buruzkoari) behin betiko onespena ematen diona baldintza batzuen pean

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. 2013ko abenduaren 19ko osoko bilkuran, Aiarako Udalak erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen bosgarren aldaketari. Aldaketa hori Arespalditzako 5. poligonoko 137-B, C eta D lurzatia hiri lurzoruan sailkatzeari eta laguntza ekipamenduan kalifikatzeari buruzkoa zen. Gainera, aldaketa hori jendaurrean 45 egun balioduneko epean jartzea erabaki zuen. Horretarako, iragarkiak sartu ziren ALHAOn (1. zenbakian, 2014ko urtarrilaren 3koan) eta "El Correo" egunkarian 2013ko abenduaren 26an, eta udalerrira osatzen duten administrazio batzarrei jakinarazi zitzaion.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, udalbatzak 2015eko apirilaren 23ko bilkuran behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalaren uztailaren 15eko 3/2015 bilkuran, espedientearen aldeko txostena egin zuen, baldintza honen pean:

"Harik eta Markijanako HUArekin lotzen ez den arte eta adikoentzako egoitza jarduera handitzeari ekin baino lehen, Kantauriko Urkidetzaren 2015eko martxoaren 24ko txostenaren (Arespalditzako isurketak egokitzeko egin beharreko lanei buruzkoa) 2. eta 3. jarduera proposamenak beteko dira, aurrerago adieraziak, hain zuzen."

Laugarrena. Espedientea nahitaezko ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren pean jarri da, eta ingurumen memoria 2014ko maiatzaren 9an eman zen.

Bosgarrena. Aiarako Udalak espedientea bidali zuen behin betiko onartua izan zedin. Espediente horrek 2015eko irailaren 9an izan zuen sarrera aldundiaren erregistroan.

Seigarrena. 2015eko urriaren 2ko irteera data duen idazkiaren bitartez, udalari adierazi zitzaion espedientea aztertu ondoren eta txostena egin aurretik berak agiri batzuk aurkeztu behar zituela. Udalak 2015eko abenduaren 15ean aurkeztu zituen agiri horiek AFAko Erregistro Orokorrean.

Zazpigarrena. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen gaineko txostena eman zuen martxoaren 10eko 1/2016 bilkuran.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Alday Ongintzako Fundazioak sustatutako espediente honen xede da hiri lurzoruan sailkatzea Arespalditzako 5. poligonoko 137-B, C eta D katastro azpilurzatiak eta laguntza ekipamenduan kalifikatzea, 5. poligonoko 137-A ondoko azpilurzatian gaur egun dagoen adinekoentzako egoitza handitzeko helburuarekin.

Agiri teknikoaren memorian zehaztutako espedientearen xedea eta justifikazioa da laguntza zentro itundua eraikitzea, gaur egun dagoenak duen edukiera baino handiagokoa; hori guztiori Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Sailarekin lankidetzan markoan.

Bigarrena. Aldaketak sailkatu nahi du 3.721 m²-ko azalera hiri lurzoru tinkotu gabea, Aiarako indarreko arau subsidiarioetan nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko lurzoru urbanizaezinean sailkatuta baitago. Berririo sailkatzeko beharra justifikatzen da kontuan hartuta lurzatiak badituela lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 11. artikuluan eskatzen diren hirigintza zerbitzuak, lurzattia hiri lurzoru ondoan dagoela eta Arespalditzako hiri sarean sartuta.

Hirugarrena. Hiri lurzoru ez tinkotuan sailkatzeko eskatzen duen agiri teknikoak, berriz, ez du eremuaren antolamendu xehatua jasotzen aurkeztutako dokumentazio grafikoan. Hirigintza agiriaren memorian jasotzen bada ere uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren estandarrak bete beharra dagoela, hura eraman behar da 207. artikuluan definitzen den antolamendu eremuaren hirigintza araudira. Halaber, kudeaketa eremua kasuan kasuko planoan jaso behar da, hau da, 5.03 planeamendu eta kudeaketa areak.

Laugarrena. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak uztailaren 15ean egindako 3/2015 bilkuran, ez zion eragozpenik ipini espedienteari lurralde antolamenduaren arloari dagokionez. Uren arloan, berriz, URA – Urenen Euskal Agentziak jarritako baldintzara jota 2015eko ekainaren 30eko txostenean.

Txosten horretan proposatzen da aldeko irizpena ematea proposatutako aldaketari, baldintza lotesle hau betetzearen baldintza pean:

1. Harik eta Markijanako HUArekin lotzen ez den arte eta adikoentzako egoitza jarduera handitzeari ekin baino lehen, Kantauriko Urkidetzaren 2015eko martxoaren 24ko txostenaren (Arespalditzako isurketak egokitze egin beharreko lanei buruzkoa) 2. eta 3. jarduera proposamenak beteko dira.

Hauexek dira jardun proposamen horiek:

– Egungo hobi septikoa egokitzea, ikuskatzean antzematen diren akatsak konponduz, aldi batean balio dezan, harik eta Markijanako HUA burutu eta abian jartzen den arte.

– Hobi septiko nagusiaren eta hobi septiko pribatuen mantentze programa finkatzea, benetan dauden isurketei egokitu.

Bosgarrena. Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritzak txostena bidali du zehaztuta proposamen aldaketak ez diela eragiten katalogatutako elementuei eta, ondorioz, ez duela kalterik eragiten Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspuntutik.

Seigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ur Zerbitzuak, 2015eko uztailaren 17an, aldeko irizpena eman zuen, adierazita ez duela eragozpenik ikusten aldaketa horretan saneamenduari dagokionez, eta onartzen du aurkeztutako txostena, non justifikatzen den egungo saneamendu sareak nahiko edukiera duela proposatutako handitzeak sortutako ekarpenak onartzeko.

Zazpigarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2016ko otsailaren 9an, aldeko irizpena eman dio espedienteari, eta ondorioztatu du bete egin dituela ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozeduraren ondoriozko ingurumen baldintzak eta gomendioak.

Zortzigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzak, irailaren 9ko 1753/2015 Ebazpenaren bidez, baimena eman zion Alday Fundazioari aipatutako obrak egiteko, baldintza zehatz batzuen menpe errepide sarreran A-624 foru errepidetik. Ondorioz, agiri teknikoak jaso egin beharko ditu Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzaren ebazpen horrek agindutako baldintzak.

Horrenbestez, nire eskumeneko ahalmenak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Aialako planeamenduko arau subsidiarioen 5. aldaketaren espedientea, baldintza hauekin:

A) Egungo hobi septikoa egokitzea, ikuskatzean antzematen diren akatsak konponduz, aldi batean balio dezan, harik eta Markijanako HUA burutu eta abian jartzen den arte. Halaber, hobi septiko nagusiaren eta hobi septiko pribatuen mantentze programa finkatzea, benetan dauden isurketei egokituta.

B) Osatzea eremu berriko antolamendu xehatua zein Aialako arau subsidiarioen 207. artikulua berrian aplikagarria den hirigintza araudia.

C) Jasotzea eremuko egikaritze unitatea 5.03 planoan (planeamendu eta kudeaketa eremuak).

D) Agirian sartzea bete direla Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Zuzendaritzaren irailaren 9ko 1753/2015 Ebazpenean jarritako baldintzak.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientearen foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO